

## San Juan lasterketa



Urtero ekainean  
Hiri-zirkuitua Gasteizen  
Ibilbidea: 5 Km.

San Juan ohiko suek protagonismoa partekatzen dute, San Juan gauean, hiriko gaueko kirol-proba ezagunena bilakatzen ari denarekin. *Running* zaleek, azken urteetan gorantz egin duen kolektiboak, beste hitzordu bat dute mota honetako deialdietan ezohikoa den ordutegian.

Partaideek ordu 1 eta 15 minututan, gehien jota, egin beharko dute ibilbide hori, eta lehenengo hiru sailkatuak sarituko dira, emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan.